

EROSKI, ATUNONTZIAK ETA AZTI ELKARTU EGIN DIRA ARRANTZATZEKO ERA IRAUNKORRAGOEN ALDE AURRERABIDE BERRIAK EBALUATZEKO ETA FINKATZEKO

[EROSKI](#), Espainiako atun ontzidia eta [ANABAC](#) eta [OPAGAC](#) izeneko sektoreko elkarteak — bertan daude, besteren artean, atun enpresa hauek: Albacora, Garavilla, Calvo, Pevasa, Inpesca, Echebaster, Atunsa eta Nicra7— elkartu egin dira [AZTI](#) itsasoan eta elikagaien berrikuntzan aditu den ikerketa zentroaren egoitzan, Derion (Bizkaia), zertarako eta aztertzeke nola doan modu iraunkorrean arrantzatzen den atunaren bolumena handitzeke hitzarmena, eta pauso berriak finkatzeke.

EROSKIk hitzarmen bat sinatu zuen 2017an atun kontserben hornitzaileekin, [ISSE](#) Arrantza Iraunkorraren aldeko Nazioarteko Fundazioak darabiltzan iraunkortasun-printzipioak bete ditzaten, eta bilera horretan ikusi dute hornitzaileak ahalegindu direla kontserbazio neurri horiek betetzen. Modu arduratsugoan (AAA, FAD objekturik gabe, MSC eta FIP) harrapatutako atun bolumena handitzearena aurrera doa, eta, dagoeneko, EROSKIk erosten duen atunaren %30 da modu iraunkor eta arduratsuan arrantzatua, 2018ko lehen seihilekoan. Kooperatibaren helburua da bolumen hori %40ra igotzea urtebete pasatuta.

Kooperatiba lanean ari da arrantza iraunkorraren politika sinatu duten hornitzaileekin; hornitzaile horiek ez dute onartzen Thailandiatik eta halako herrialdeetatik datorren atuna; izan ere, EBk txartel horia ezarri die, ez baitituzte betetzen Eskualde Erakundeek onartutako neurriak eta ez baitute neurririk hartu legez kanpoko arrantza amaitzeke.

EROSKI

Dirección de Comunicación Corporativa
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – OFICINA DE PRENSA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Sala de prensa online](#)